



ORDAINKETA BAKARRAREN EZARPENA

ORDAINKETA BAKARRERAKO ETA BESTE LAGUNTZA ZUZENETARAKO ESKAERA

- 2006. urtean laguntzaren bat lortu nahi duten nekazariak, ordainketa bakarreko erregimenaren barruan, gainerako laguntza erregimenen barruan (labore hazkuntza, abeltzaintza, etab.) edo erregimen bateko zein besteko laguntzak, eskaera bakarra aurkeztu beharko dute, eta bertan, ustiategia osatzen duten sail guztien zerrenda azalduko beharko dute.
- Nekazariak, 2006. urterako eskaera bakarraren aurkezpenarekin batera, behin-behinean esleitu zaizkien laguntza eskubideak indarrean jarri beharko dituzte.
- Nekazari bat ez badator bat esleitu zaizkion behin-behineko eskubide datuekin, NEBetara jo eta alegazio bat aurkeztu beharko du, eskaera bakarrarekin batera eta eskaera bakarra aurkezteko epearen barruan. Alegazio horretan laguntza eskubideak berriro kalkulatzeko arrazoiak justifikatu beharko dira.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaera bakarra ustiategia edo ustiategi eremu zati handiena dagoen Autonomia Erkidegoan aurkeztu beharko da, eta lur sailik ez balego, animalia buru gehien dagoenean. Aurkezteko epeak honako hauek izango dira:

- **2006. urtean, otsailaren 1etik martxoaren azken ostirala arte.**

ZER DA ORDAINKETA BAKARRA?

Orain arte ekoizpenari lotuta zeuden zenbait laguntza (ordainketa zuzenak belarkien hazkuntzan, ardi eta ahuntz aziendan, behi arren aziendan, esneingintzaren sektorean, etab.), ordainketa bakarraren bitartez kobratuko dira 2006. urteaz geroztik, ekoizten diren edo ez kontuan hartu gabe. Laguntza zuzenak ekoizpenetik bereizte horri desakoplamendu esaten zaio. Desakoplamendua erabatekoa edo partziala izan daiteke.



ORDAINKETA BAKARREAN INTEGRATUTAKO LAGUNTZEN EHUNEKOA

LAGUNTZA ILDOA		INTEGRATUTAKO EHUNEKOA
BEHI AZIENDA	Behi ume-hazlea	0%
	Txahalak hiltzea	0%
	Helduak hiltzea	60%
	Sari berezia behi arra	93%
	Ordainketa zabaltzeagatik	93%
	Ordainketa gehigarriak	93%
ESNE SARIA	Esne kuota	90%
	Ordainketa gehigarriak	90%
ARDI-AHUNTZ AZIENDA	Sariak buruko	50%
	Sariak inguru kaltetuetan	50%
	Ordainketa gehigarriak	100%
BELARKIEN HAZKUNTZA	Laboreak	75%
	Olio landareak	75%
	Ale lekadunak	100%
	Proteaginosak	75%
	Proteaginosen berariazko laguntzak	0%
	Nahita uztea	75%
	Derrigorrez uztea	100%
	Gari gogorraren osagarria	75%
	Gari gogorraren kalitate gehigarria	0%
	Hazkuntza energetikoentzako laguntzak	0%
	Haziak	0%
	Oliba olioak	93,61%
	(< 0,3 hektareako ustiategia)	(100%)
	Tabakoa 2006-2009	38%
	2010- ...	100%

"BALDINTZAZKOTASUNA" BETE BEHAR DUZU!

Nekazariak eta abeltzainek Ordainketa Bakarra osorik jasotzeko eta ekoizpenari egokitutako gainerako laguntzak jasotzeko bete behar dituzten legezko kudeaketa baldintzen eta nekazaritzaren eta ingurumenaren alorreko baldintza egokien multzoa da baldintzazkotasuna.

Baldintzazkotasuna beteko ez balitz, honela murriztuko litzateke laguntza:

- *Arduragabekeriagatik, lehen batean %3, baina %1era ere murriztu daiteke edo %5era igo, eta baita %15era ere, behin eta berriz gertatuz gero.*
- *Nahita beteko ez balitz, %20 (hutsegite oso larrietan, %15 eta laguntzak erabat kentzearen artekoa izan daiteke murrizketa).*

ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEAK ESLEITZEKO ALDIAK

Nekazariak jakinarazitako ordainketa eskubideak **behin-behinekoak** dira.

Esleipen hori behin betikoa izateko, **2006an eskaera bakarra aurkezteko unean bertan indarrean jarri beharko dira** eskubide horiek. Hala gertatuko ez balitz, esleitutako eskubideak Erreserba Nazionalera joango liriateke, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Eskubideak indarrean jartzeko ez da nahitaez ordainketa bakarrerako eskaerarekin batera eskubide kopuruaren hektarea kopuru baliokidea adierazi behar; hala eta guztiz ere, **nekazaria dela egiaztatu** behar da.

NOR DA NEKAZARI?

Euskal Herrian, Ordainketa Bakarrari dagokionez, pertsona bat nekazaritza joko da, baldin eta pertsona hori Foru Aldundietako Nekazaritza Ustiatuegiaren Erregistroan titular edo titularkide gisa agertzen bada.



ORDAINKETA BAKARRAREN ETA BESTE LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Nekazariak deklaraturako lursailak erabil ditzakete edozein nekazaritza jarduerarako laguntza eskubideen ordainketa justifikatzeko, fruitu eta barazkien ekoizpena, pataten ekoizpena eta labore iraunkorren kasuan izan ezik. Lursail horiek erreferentzia zenbaterakoak sortu zituzten berak izan daitezke, edo ez, eta alokairuan edo jabetzan hartuak izan daitezke.

Nekazariak kendutako lursailak (kentzeko eskubideak justifikatzeko balio dutenak) gizakiak edo animaliak elikatzeke ez diren produktueterako lehengaiak lortzeko erabil ditzakete; kasu horretan, kontratu bat beharko dute lehen eraldatzaile batekin eta eskaera bakarrarekin batera aurkeztu beharko dute.

Borondatez kendutako sail bat belarki hazkuntzaren erregimenaren barneko hazkuntzatzat jotzen; hazteko azaleraren %10 bitarte onartuko da, eta laguntzatik egokitutako zatia jasoko da (%25).

Gainera, **bateragarria da hazkuntza energetikoei ematen zaien laguntzekin eta belarki hazkuntzarako ordainketarekin.**

LAGUNTZA ESKUBIDEEN ERABILERA

Ordainketa bakarraren laguntza jaso ahal izateko, azalera eskubideen kasuan (eskubide normalak eta kentzekoak), beharrezkoa da Ordainketa Bakarrerako eskubide bakoitzeko hektarea onargarri bat edukitzea Espainiako Estatuan (Kanarietan izan ezik).

Ustiategiaren nekazaritzarako eremua, hazkuntzarako eta bazka iraunkorrerako lurrez osatua, hartzen da hektarea onargarritzat, hazkuntza iraunkorretarako, basoetarako, baratze hazkuntzarako, patatak hazteko edo nekazaritzaz kanpoko jardueretarako erabiliak izan ezik. **Kentzeko eskubideak** justifikatzeko eremua ezin erabiliko da nekazaritzarako, ezta merkataritza jardueretarako ere (ekoizpen osoa ekologikoa bada izan ezik), urte bakoitzeko urtarrilaren 15etik abuztuaren 31ra bitarteko epealdian.

Laguntza eskubideen erabilera era honetara ezartzen da:

1. Lehenbizi, lurra kentzeko eskubideak.
2. Ondoren, zenbateko handieneko laguntza eskubideak. Balio bereko laguntza eskubideen artean, horien erabilera duten zenbaki ordenaren arabera hartuko da kontuan.
3. Erreserba Nazionalaren laguntza eskubideak azken lekuan baliatuko dira.

Urte jakin batean **Ordainketa Bakarrerako eskubideen** erabilera ez bada %100ekoa –hurrengo urteetan horietan egingo den erabilerrari dagokionez–, aurretik erabilitako eskubideak hartuko dira kontuan lehenik, lehen azaldutako irizpideen arabera.

Eskubide berezien kasuan, erreferentzia epealdian egindako abeltzaintza jardueren %50 mantendu beharko dira gutxienez, abere larriari dagokion unitateetan adierazita (ALU).



NEKAZARIAK DERRIGORREZ ERABILI BEHAR AL DITU ORDAINKETA BAKARRERAKO ESKUBIDEAK?

Esleitutako eskubideak dituen nekazariak epealdi jakin batean erabili beharko ditu eskubide horiek; bestela, erabili gabeko eskubideak kendu eta Erreserba Nazionalari esleituko zaizkio. Gutxieneko erabilerak eskubide horien jatorriaren arabera dira:

- **Esleipenari berari dagozkion eskubideak:** Eskubide horiek hiru urtez behin erabili behar dira, gutxienez.
- **Erreserba Nazionaleko eskubideak:** Ekoizleak eskubide guztiak erabili beharko ditu esleitu zaizkionetik lehenengo 5 urteetan, eta epe horretan ezingo dira utzi.

ESLEIPEN BEREKIKO ESKUBIDEEN ERABILERAREN ADIBIDEA

Nekazari batek ordainketa bakarreko 100 eskubide normal ditu esleituak behin behinekoz, eta esleipen berekiko eskubideak dira. 2006an indarrean jartzen ditu bere eskubideak.

Demagun 60 hektarea onargarri dituela 2006an; ordainketa bakarreko 60 eskubide erabil ditzake, eta 60 eskubide horiengatik kobratuko du horrenbestez.

2007an, 90 hektarea aurkezten ditu; hala, 90 eskubide erabili eta 90 horiengatik kobratuko du. 2008an, 85 hektarea aurkeztu eta 85engatik kobratuko du.

Esan dugunez, esleipen berekiko eskubideak soilik dituen nekazaria behartuta dago eskubide guztiak hiru urtetik behin gutxienez erabiltzera.

Adibide honetako nekazariak 2007an erabili ditu eskubide gehien: 90 erabili ditu bere 100 eskubideetatik.

Beraz, 3 urtean 10 eskubide erabili ez dituenek, eskubide horiek kenduko zaizkio eta Erreserba Nazionalera bideratuko dira.

ERRESERBA NAZIONALEKO ESKUBIDEEN ERABILERAREN ADIBIDEA

Nekazari batek esleipen berekiko 10 eskubide eta Erreserba Nazionaleko beste 4 ditu esleituak behin behinekoz. 2006an indarrean jartzen ditu ordainketa bakarreko bere eskubideak.

Demagun 11 eskubide erabiltzen dituela bere 14 eskubideetatik 2006an. Beraz, Erreserba Nazionalari dagozkion eskubide guztiak erabiltzera behartuta dagoenez, eta eskubide horiek direnez erabilgarri gisa kontuan hartzen diren azkenak, nekazariak 3 eskubide galduko ditu eta Erreserba Nazionalera sartuko dira.

Hortaz, 2007aren hasieran, 11 eskubide ditu; 10 erabiltzen baditu, Erreserbako eskubide guztiak erabili ez dituenek, erabili gabeko eskubidea galduko du eta Erreserba Nazionalera bideratuko da.

Ondorioz, 2008aren hasieran, nekazariak esleipen berekiko 10 eskubide ditu, Erreserbari dagozkion eskubideak kendu egin zaizkiolako.

2008an, 9 eskubide erabiltzen ditu. Orain, ordea, ez ditu eskubide horiek galduko, bere eskubideak esleipen berekikoak direlako eta jadanik erabili dituelako guztiak 3 urteko epean (2006an eta 2007an). Eta horrela, hurrenez hurren, hiru urteko epeetan.

ESNEGINTZAREN SEKTOREA ORDAINKETA BAKARREKO ERREGIMENEAN SARTZEA

Behin behineko komunikazioan esnegintzaren sektoreari dagozkion datuak ageri badira ere (esne saria eta sari gehigarria), **datu horiek behin-behinekoak dira.**

Behin betiko datuak, ustiategi bakoitzerako, kuotaren eta esne sariaren balioaren (2006ko martxoaren 31n) mende egongo dira.

Ordainketa bakarreko erregimenerako urratsa era honetan egingo da:

- Abeltzainak eskubiderik ez badu, eskubide berriak esleituko zaizkio (eskubide bereziak, hasiera batean).
- Abeltzainak eskubideak baditu, eskubideen hasierako balioa gehituko zaie.

Abeltzainek laster batean jasoko dituzte beren behin betiko datuak.

NOIZ SALDU DAITEZKE EDO EMAN DAITEZKE ERRENTAN ORDAINKETA BAKARRERAKO ESKUBIDEAK?

Eskubideak ezin daitezke eskualdatu behin betiko ezarriak izan aurretik, eta ezinbestekoa izango da horretarako lehenik indarrean jartzea.

Behin betiko laguntza eskubideak 2006ko abuztuaren 15a baino lehen ezarriko dira. Nolanahi ere, data hori atzeratu ahal izango da (2006ko abenduaren 31 arte gehien jota), ordainketa bakarreko erregimenaren aplikazioaren lehen urteari dagokion ordainketaren jakinarazpen-datarekin bat etor dadin.

Eskubideak uzteari ezarritako mugak:

Mugak ekoizlearen ezaugarriengatik:

- Esleitutako eskubideen %80 erabili beharko dira urte berean.
- Esleiturik dituen Erreserba Nazionaleko eskubideek 5 urtetik gorako antzinatasuna izan behar dute utzi ahal izateko.

Mugak eskubideen eskualdatze motagatik:

- Eskubideen errentatzea lur kantitate berberarekin (hektarea onargarriak) egingo da.
- Eskubideen salmenta lurrekin edo lurrik gabe egin daiteke.

ESKUBIDE BEREZIAK UZTEA

Eskubide bereziak uzteko, eskubideek beren izaerari eutsiko diote, baldin nekazariak dituen eskubide guztiak uzten badira.

Eskubide bereziak zatika uztean, utzitako eskubideak eskubide normal bihurtuko dira, eta hartzaileak aurkeztutako hektarea onargarri kopuruak eta utzitako laguntza eskubide kopuruak berberak izan beharko dute.

ORDAINKETA BAKARRERAKO ESKUBIDEAK ERRENTAN EMATEA

Lurren laguntza eskubideak errentan eman daitezke, errenta kontratuak honako klausula hau jasoz gero: utzitako eskubide kopuruak ez du errentan emandako hektareen kopurua gaindituko.

Laguntza eskubideak eta hektareak denbora epe berbererako emango dira errentan.

Errentatzailearen eta errentariaren eskaerak aldi berean aurkeztuko dira, baldin Autonomia Erkidego berean aurkeztu behar badituzte. Bestela, errentariaren eskaerak errentatzailearen datuak jasoko ditu: izen-deiturak, IFZ edo IFK, eta baita errentatzailearen eskubideen kodea ere.

LAGUNTZEN KENKARIAK

MODULAZIOA: Landa Garapenerako Programak finantzatzeko ordainketa zuzenei ezartzen zaien urteko murrizketa da. Hasierako 5.000 euroei ezarritako kenkariak itzuli egiten dira, laguntza zenbateko gehigarri moduan. Honako ehuneko hauek erabiliko dira modulaziorako: 2006an, %4; 2007tik 2013ra bitartean, %5.

Gainera, Estatu kideek aukera izango dute modulazioa %20ra handitzeko.

ERRESERBA NAZIONALA: %3ko kenkaria ezarriko da.

DOIKUNTZA ESTATUARI EZARRITAKO MUGA GAINDITZEAGATIK. Kenkari aldakorra aplikatuko da, sektoreen arabera, %0,83 eta %4,62 artekoa.

ATXIKIPEN GEHIGARRIA (69. art.): Kalitatea bultzatzeko eta ingurumen baldintzak hobetzeko aplikatzen den atxikipena. Kantitate hauek sektore berberetara itzuliko dira ondoren, baldintza batzuk betetzen dituzten nekazariari eginiko ordainketa gehigarri moduan. Zehazki:

Tabakoa: %5 Esne saria eta ordainketa gehigarriak: %10 Behi aziendagatiko ordainketak: %7

FINANTZA DIZIPLINA: (2007tik aurrera). Kenkari gehigarriak ezarriko dira aurrekontuak gainditzen diren kasuetarako. Gainera, Bulgariaren eta Errumaniaren sarrerak murriztapen gehigarri bat eragingo luke: laguntzen %6-7ko kenkaria, kalkuluen arabera.

ATXIKIPENAK ESKUBIDEEN TRANSFERENTZIAN

Laguntza eskubideen salmenta (lurrik gabe):

- **Kasu orokorra**
 - %50eko atxikipena 2006, 2007 eta 2008an
 - %30ekoa, aurrerantzean.
- **Eroslea nekazari profesionala bada**
 - %15eko atxikipena 2006, 2007 eta 2008an
 - %10ekoa, aurrerantzean.

Eskubideen salmenta (lurrekin): %5

Ez da atxikipenik aplikatuko:

- Laguntza eskubideak ustiategi osoarekin saltzen direnean.
- Laguntza eskubideak (lurrekin edo lurrik gabe) nekazaritza jardueran hasten den nekazari bati saltzen zaizkionean.
- Salerosketa jakin batzuetan.

ERRESERBA NAZIONALA NORK ESKA DIEZAKIOKE ERRESERBA NAZIONALARI ORDAINKETA BAKARRERAKO ESKUBIDEAK?

Nekazari guztiek eska diezazkiokete Erreserbari Ordainketa Bakarrerako eskubideak, baina lehen-tasuna izango dute honako hauek:

- **Jarduerari 2002ko abenduaren 31z gero ekin diotenenk (edo 2002. urtean, baina urte horretan erreferentzia zenbatekorik izan gabe).**
- **2004ko maiatzaren 16tik aurrera beren lehen instalazioa egin duten nekazari gazteek;** alegia, lehenengo instalaziorako laguntza eskatu, eta 613/2001 Errege Dekretuaren baldintzak betetzen dituztenek.
- **Berregituratze edo garapen programa publikoetarako eremuetako nekazariak,** lurrak utz edo bazter ez ditzaten eta eremu horietako desabantaileri aurre egiteko.
- **Berezitat jotzen diren egoeretako batean dauden nekazariak;** besteak beste, honako hauek:
 - **Esneki ekoizleak:** Esneki kuota bat duten ekoizleak dira, baina ezinbestean, 2005/2006 kanpainarako, kuota hori oso-osorik edo zati bat alokatu dutenak; horrenbestez, ez dute kuota hori izango 2006/03/31n.
 - **Alokatutako lurrak uztea:** Erreferentzia epealdian hirugarren pertsona batek alokatutako ustiategi bat edo ustiategiaren zati bat jasotzen duten nekazariak dira.
 - **Inbertsioak:** Ustiategiaren ekoizpen gaitasunaren gaineko inbertsioak, edo beranduenez 04/05/15ean lurrak eskuratu dituztenenak.
 - **Alokatutako lurren alokairua eta erosketa:** 04/05/15aren aurreko alokairuak.
 - **Ekoizpenaren birmoldaketa:** 2004/05/15a baino lehen, ordainketa bakarrean txertatutako erregimen batzuen ekoizpenaren birmoldaketarako programa nazionalen batean parte hartu duten nekazariak.
- **Epai judizial edo administrazio egintza irmoen ebazpena.**

ORDAINKETA GEHIGARRI BERRIAK

69. artikulua aplikatzean, ordainketa gehigarri berriak agertu dira. Eskaera bakarra aurkezteko epe barnean eskatu beharko dira, hain zuzen, ordainketa horiek.

Haragitarako behiak:

- Behi ume-hazleen ustiategiei emandako ordainketa gehigarriak.
- Ofizialki kalitatea aitortzen zaion behi haragiaren ekoizpenari emandako ordainketa gehigarriak.

Esnegintzaren sektorea:

- Esnegintzaren sektoreari emandako ordainketa gehigarriak.

LURRIK GABEKO LAGUNTZA ESKUBIDEEN SALMENTA ADIBIDEA

Nekazari batek 60 laguntza eskubide ditu eta lurrik gabeko 20 eskubide saltzen dizkio beste nekazari profesional bati

Atxikipena: $20 \times \%15 = 3$ eskubide

Saltzailea 40 eskubiderek in erabiltzen da, 20 eskubide saldu dituelako hasieran zituen 60etatik.

Erosleak 17 eskubide eskuratzen ditu.

Atxikitako 3 eskubideak Erreserba Nazionalari gehitzen zaizkio.

LURREN LAGUNTZA ESKUBIDEEN SALMENTA ADIBIDEA

60 laguntza eskubide dituen nekazari batek lurren 20 laguntza eskubide saltzen dizkio beste nekazari profesional bati

Atxikipena: $20 \times \%5 = 1$ eskubide

Saltzailea 40 eskubiderek in erabiltzen da, 20 eskubide saldu dituelako hasieran zituen 60etatik.

Erosleak 19 eskubide eskuratzen ditu.

Gainerako eskubideak Erreserba Nazionalari gehitzen zaizkio.

**ERRESERBA
NAZIONALARI
2006an EGIN BEHAR
ZAIO ESKUBIDE
ESKAERA, ESKAERA
BAKARRAREKIN
BATERA, ETA HORI
AURKEZTEKO EPEAREN
BARRUAN**

ALOKATUTAKO LURRETAN SORTUTAKO ESKUBIDEAK UZTEN DIRENEAN

Nekazari batek erreferentzia zenbateko batzuk sortu zituen bera errentaria zen lursail batzuetan. Gaur egun, lursail horiek beste nekazari bati alokatuta daude. Hasierako nekazari errentariak behin betiko eskualdatu nahi dizkio eskubideak oraingo nekazari titular edo errentariari.

Lurrik gabeko ordainketa bakarrerako eskubideak 2006an eskaera bakarra aurkezteko epearen barruan baino ezingo dira **behin betiko eskualdatu**. Beraz, eskualdatze hori alegatu beharko litzateke, eskaera bakarra aurkezteko epea amaitu aurretik; eta, 2006an baino ez.

Oraingo errentariak denbora mugagabeen izango ditu eskubideak.

ESKUBIDEAK ALOKATZEN DIRENEAN

Nekazari batek erreferentzia zenbateko batzuk sortu zituen erreferentzia epealdian, bere jabetzako lursail batzuetan. Gaur egun, beste nekazari batek alokatu ditu lursail horiek.

Eskubideen titular den nekazariak ordainketa bakarrerako erregimena ezartzean (2006) jarri beharko litzuzke indarrean bere eskubideak. Era berean, alokairu kontratu bat aurkeztu beharko du, alokatutako lurrekin batera laguntza eskubide batzuk uztea aurreikusiko duen klausula batekin. Aldi berean, errentariak alokairu kontratu bera aurkeztu beharko du.

Ondorioz, **alokairu kontratua indarrean dagoen bitartean**, ordainketa bakarrerako eskubideak **errentariak izango ditu; kontratua amaitzean denean, ordea, berriro ere jabearen esku geratuko dira**, bera baita hasierako erantzulea eta hark baitzeukan hasieran esleiturik.

HERRI LURREN GAINEAN SORTUTAKO ESKUBIDEEI BEGIRAKO AUKERAK

Autonomia Erkidegoko Araudiak ez du herri lurren kasua bereizten, eta beste alokairu bat balitz bezala jokatatu behar da. Alokairu kasu guztietan bezalaxe, **ordainketa bakarrerako eskubideak** erreferentzia epealdian **herri lurrak kudeatu zituen nekazariari dagozkie**.

Horrenbestez, erreferentzia epealdian lursailak kudeatu dituen nekazariak eskaera bakarra 2006an aurkezteko epearen barruan baino ezingo dizkio **eskualdatu behin betiko** eskubideak egungo nekazariari edo lursailen jabe den Entitate publikoari: Udalak, Administrazio Batzordeak, etab. Baina, betiere, nekazaritzarekin lotutakoa behar du. Horretarako, **dagokion alegazioa aurkeztu** beharko du erantsita.

Eskualdatzea egiteko, ezinbestekoa da eskubideen hasierako erantzuleak (erreferentzia epealdiko nekazariak) **uko egitea** herri lur horietan sortutako erreferentzia zenbatekoei, eta nekazari berriari edo Entitate jabeari (ezinbestean egon behar du nekazaritzarekin lotuta) eskualdatzea.

USTIATEGIA SALDU DUENAREN UZTE AURRERATUA

Saltzailearen (uzte aurreratuari helduta) eta eroslearen (egungo nekazaria) artean egindako salerosketa kontratuak ustiategia oso-osorik edo ustiategiaren zati bat saltzea erabakitzen badu, betiere finkatutako laguntza eskubideekin, salerosketa kontratu honek lurren laguntza eskubideak uzteko balioa izango du. Salerosketa kontratuan laguntza eskubideen uztea ageri ez bada, ordea:

1. Salerosketa 2004ko maiatzaren 15a baino lehen egin baldin bazen, erosleak eskubideak eska diezazkioke Erreserba Nazionalari, eta saltzaileari uste-kabeko onuraren klausula aplikatu beharko zaio.
2. Salerosketa 2004ko maiatzaren 15aren ondoren eginenez gero, saltzailearenak izango dira eskubideak, eta erosleak Erreserbari eskatu beharko dizkio eskubideak; alabaina, ez dituzte lehentasunez tratatuko.

Modu honetara, **lagatzailearen jabetzako lursailen gainean sortutako eskubideak baino ezin dira behin betiko eskualdatu**.

Alokatutako lursailen gainean sortutako eskubideak eskualdatzeko, berriz, ezinbestekoa da alegazio bat aurkeztea. Hala, lurrik gabeko eskubideak uzteko eskaera egin behar da, 2006an eskaera bakarra aurkezteko epealdia amaitu aurretik.

USTIATEGIA ALOKATU DUENAREN UZTE AURRERATUA

Eskubideen titular den nekazariak, uzte aurreratuari heldu diona, ordainketa bakarreko erregimena ezartzeko urtean (2006) jarri beharko litzuzke indarrean bere eskubideak. Halaber, alokairu kontratu bat aurkeztu beharko luke, alokatutako lurrekin batera laguntza eskubide batzuk uztea aurreikusiko duen klausula batekin (lur horiek uzte aurreratuari heldu dion nekazariaren jabetzakoak baino ez dira). Aldi berean, errentariak alokairu kontratu bera aurkeztu beharko du. Alokairu kontratua amaitzean, ordainketa bakarreko eskubideak lagatzailearen bizkar geratuko dira, baina erabili ezin dituzenez, berriz ere alokatu edo saldu egin beharko ditu. Gaur egun, alokairu kontratua alda (edo finka) daiteke, eta klausula hori gehitu beharko da.

Horrenbestez, **lagatzailearen jabetzako lursailen gainean sortutako eskubideak aldi baterako baino ezin dira eskualdatu**.

Alokairu kontratua 2004/05/15aren aurretik egiten bada, errentariak lehentasunezko eskubideak eska diezazkioke Erreserba Naturalari, hain zuzen, alokatutako lurrengatik.

Alokatutako lursailen gainean sortutako eskubideak eskualdatzeko, berriz, ezinbestekoa da alegazio bat aurkeztea. Hala, lurrik gabeko eskubideak uzteko eskaera egin behar da, 2006an eskaera bakarra aurkezteko epealdia amaitu aurretik.